

Deialdia, Sakanako Mankomunitateko kudeatzailea oposizio-lehiaketa bidez ordezkatzeko

Lehendakaritzaren azaroaren 13ko 495 zenbakidun Ebazpenaren bidez, honako hau erabaki da:

1.º Sakanako Mankomunitateko Kudeatzailea oposizio-lehiaketa bidez ordezkatzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

2.º Prozedura oinarriekin bat etorritik hastea eta deialdia eragin duen presazko egoera deklaratzeko.

3.º Deialdiaren oinarriak SAKANAKO MANKOMUNITATEKO IRAGARKI OHOLERA ETA WEB ORRIRA igortzea. Hona hemen oinarriak:

SAKANAKO MANKOMUNITATEKO KUDEATZAILEA OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ ORDEZKATZEKO DEIALDIA

Deialdi hau honako hauen arabera arautuko da:

OINARRIAK

1. oinarria. Arau orokorrak

1.1. Sakanako Mankomunitateko kudeatzailea oposizio-lehiaketa bidez ordezkatzeko du xede deialdi honek.

Lan poltsa sortuko da hautapen prozesu hau gainditzeko izangaiekin, puntuazio ordenari zorroztz jarraituz, eta indarrean izanen da 5 urtez edo beste deialdi bat egin bitartean.

1.2. Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoarekin bat, aldi baterako langileak hautatzeko prozeduretan, bilatuko da kontratazioa ahalik eta arintasun handienarekin egitea. Larrialdiko kasua da hau, kudeatzailearen funtzioen garrantziagatik.

1.3. Hautapen probak 7. oinarrian ezarritakoak izanen dira eta lehiaketaldia ere baloratuko da, baldintza hauen 7.1 oinarrian ezarri bezala.

1.4. Hautapen prozesu honen kontratazioak 6 hilabete iraunen du, luzagarria izanen da eta kasua bada, iraunen du lanpostuan ordezkapenak egiten diren bitartean. Kontratua bukatzeko zergatia izanen da Nafarroako Administrazio Publikoetan langileak administrazio araubidean kontratatzen dituen irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuan aipatuetariko edozein. Edonola ere, kontratua bukatuko da lanpostuaren titular den Sakanako Mankomunitateko kudeatzailea jarduneko egoerara itzultzen denean edo lanpostua amortizatzen denean.

Bi hilabeteko probaldia ezartzen da eta horretan Sakanako Mankomunitateak prozesu honetan hautatutako langileekin formalizatutako kontratazioak ezeztatu ahalko ditu bere iritzia erabera.

1.5. Lanaldia Sakanako Mankomunitateak ezartzen duena izanen da; betiere zerbitzuaren beharren arabera. Hala ere, noiznahi aldatzen ahalko da.

1.6. Lanpostuak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan A mailarako ezarritako ordainsariak izanen ditu, baita plantilla organikoan lanpostu horretarako ezarritako osagarriak ere.

1.7. Deialdi honen ondorioz izendatzen den izangaiak ondoko eginkizunak izanen ditu, bestek beste:

- **Mankomunitatearen lidergoa.**
- **Plan estrategikoa gidatzea.**
- Bere ardurapeko eremuko zerbitzuen arduradunak modu proaktibo, eraginkor eta sistematikoan **gidatzea, kudeatzea eta koordinatzea**, zerbitzu horien egoerak eta kalitatea aztertzeko eraginkortasunean, garapenean, plangintzan eta laguntzan lagunduz, eta jarduteko modua zerbitzu bakoitzaren errealitatera eta beharretara egokituz, betiere plan estrategikoaren eta mankomunitatearen lehentasunen arabera.
- **Baliabide ekonomikoak eta materialak kudeatzea.**
- **Diru laguntzen kudeaketaren koordinazioa eta aholkularitza teknikoa.**
- **Gobernu-organoei aholkularitza teknikoa ematea.**
- **Langileak kudeatzea.**
- **Kontratazio publikoarekin zerikusia duten lanen kudeaketak.**
- **Osasuna eta prebentzioa kudeatzea.**
- **Barne- eta kanpo-komunikazioa koordinatzea.**
- **Mankomunitatearen ordezkari izatea hornitzaileen, erakundeen eta kanpoko beste eragile batzuen aurrean.**
- **Zuzendaritza-taldeko kidea.**
- **Mankomunitateko gainerako langileekin partekatutako erantzukizunak.**
- Aipatutakoez gain, agintzen zaizkion bestelako erantzukizunak ere hartu beharko ditu bere gain, betiere bere maila profesionalarekin bat datozenak.

2. oinarria. Izangaien betebeharrak.

2.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiak baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bururatzen den egunean:

a) Adinez nagusia izatea.

b) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, unibertsitateko lizentziaren edo graduatu titulua edo balio bereko beste bat izatea, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina.

Baldin atzerrian lortutako tituluak badira, eduki beharko da homologazioa frogatzen duen agiria.

- c) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.
- d) Eginkizun publikoak betetzeko desgaitua edo gabetua ez izatea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia ez izatea.
- e) B motako gidabaimena edukitzea.
- f) EGA edo titulu baliokidea edukitzea, edo horri dagokion euskara proba gainditzea.

2.2. Lanpostua eskuratzen duten izangaiek betebeharrak horiek frogatu beharko dituzte deialdi honetan aurreikusitako epe eta moduan. Eskabideak aurkezteko epea bururatzen den egunean bete beharko dituzte eta hautapen prozeduran haien jabe izan beharko dute, izendapena egin arte.

3. oinarria. Eskabideak.

3.1. Hautapen prozesuan parte hartu nahi dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute Sakanako Mankomunitateko Erregistro Orokorrean, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Foru Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren tokietako edozeinetan.; kasu horretan, dokumentazioa aurkeztu izana frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute ezarritako epea baino lehen posta elektronikoko helbide honetan: idazkaria@sakana-mank.eus.

3.2. Eskabideak aurkezteko epea 2024ko azaroak 22 14:30ak arte,. Eskabidea I. eranskineko ereduari lotuko zaio, eta ondokoekin batera aurkeztuko da:

- a) NANaren edo horren baliokidea den identifikazio agiriaren fotokopia.
- b) Gidabaimenaren fotokopia.
- c) Eskatutako tituluaren kopia bat.
- d) Lehiaketaren baremoaren irizpideei jarraikiz, baloratuko diren merezimenduen gaineko agiriak. Epaimahaiak ez ditu aintzat hartuko dagozkien dokumentuarekin egiaztaturik ez dauden merezimenduak.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

4. oinarria. Behin-behineko zerrendak.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, jendaurrean paratuko da izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda, Sakanako Mankomunitatearen iragarki oholean eta webgunean (<http://sakana-mank.eus/>).

Bost egun naturaleko epean, iragarkia Sakanako Mankomunitatearen iragarki oholean eta webgunean (<http://sakana-mank.eus/>) argitaratu eta biharamunetik hasita, izangaiek erreklamazioak egin edo eskabideko akatsak zuzentzen ahalko dituzte.

5. oinarria. Behin betiko zerrendak.

Inor baztertzen ez bada, zuzenean argitaratuko da behin betiko zerrenda, eta zerrenda horretan bertan jarriko dira hautaprobak egiteko eguna, ordua eta tokia, eta, kasua bada, euskararen probak egiteko ere bai.

Alegaziorik baldin badago, horiek ebatzi ondoren, Lehendakariak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta hura argitara emango da Sakanako Mankomunitatearen iragarki oholean eta webgunean (<http://sakana-mank.eus/>), hautapen proba egiteko eguna eta tokia adierazita. Halaber, kasua bada, euskararen probak egiteko eguna eta tokia iragarriko dira.

6. oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.

6.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Aitor Larraza Carrera, Sakanako Mankomunitateko lehendakaria. Ordezkoa: Berak hautatzen duen pertsona.
- Bigarren mahaikidea: Oihana Olaberria Jaka, Sakanako Mankomunitateko lehendakariordea. Ordezkoa: Berak hautatzen duen pertsona.
- Hirugarren mahaikidea: Olatz Garde Mazkieran, Sakanako Mankomunitateko hondakin teknikaria. Ordezkoa: Berak hautatzen duena.
- Laugarren mahaikidea: Ana Carrillo Simón, langileen ordezkaria, Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen 113/1985 Errege Dekretuaren 21.1 artikuluan xedatutakoarekin bat. Ordezkoa: langileen ordezkartzak proposatua.
- Mahaikide-idazkaria: Sakanako Mankomunitateko idazkaria. Ordezkoa: Sakanako Mankomunitateko kide den udal bateko idazkari bat. Hitza izango du, baina botorik ez.

6.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa, gutxienez, bildu gabe. Halaber, mahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, eraketa baliozkoa izan dadin.

6.3. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdi honen oinarrien interpretazio eta aplikazioaren inguruko arazoak.

6.4. Epaimahaiak aholkularien laguntza eska dezake proba guztietan edo batzuetan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta epaimahaiari horietan bakarrik emanen diote laguntza.

6.5. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta epaimahaiko buruari hala jakinarazi, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako aurreikusitako dauden arazoak gertatzen direnean.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute mahaikideak errefusatzeko, arrazoi horietako bat izaten denean.

Epaimahaia aldatzen bada, mahaikideek parte ez hartzeko eta haiek errefusatzeko lege ezarritako kasuak direla-eta, jendaurrean agertuko da hori, izangai onartu eta baztertuen zerrendekin batera.

6.6. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da.

7. oinarria. Proben nondik norakoa.

Oposizioaldia hasi baino lehen euskararen proba eginen dute deialdi honen oinarrietan eskatutako ezagutza agirien bidez egiaztatu ez dutenek. Proba horretan idatzizko bi ariketa eginen dira eta ahozko bat, eta horiekin zehaztuko da izangaia gai edo ez-gai den, C-1 hizkuntza mailari, EGARI edo baliokidea den tituluari dagokionez. Proba horiek Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko edo Euskarabideako langileek eginen dituzte. Ondotik etorriko dira oposizioko proba berariazkoak.

7.1. Lehiaketaldia.

Epaimahaiak izangaiek aurkezturiko merezimenduak baloratuko ditu, baremo honen arabera:

–Lanbideko esperientzia:

- Administrazio edo enpresa publiko batean, kudeatzaile edo zuzendari lanpostu batean egindako urte oso bakoitzeko: 2 puntu.
- Entitate pribatu batean kudeatzaile edo zuzendari lanpostu batean egindako urte oso bakoitzeko: 0.5 puntu.

Urtebetetik beherako aldiak proportzioan puntuatuko dira, lan bizitzaren txostenari jarraituz.

Atal honetan gehienez ere 10 puntu emanen dira.

- Prestakuntza osagarria (gehienezko puntuazioa: 6 puntu):

A. Eskainitako lanpostuarekin zerikusia duen unibertsitateko titulazioa izatea, deialdian parte hartzeko baldintza gisa aurkeztutakoaz bestekoa.

- Unibertsitateko erdi mailako titulazioak: 1 puntu.
- Unibertsitateko goi mailako titulazioak: 3 puntu.
- Masterrak edo graduondokoak: 1 puntu.

B. Prestakuntza ikastaroak, gai zerrendako gaiekin zerikusia badute. 0,005 puntu emanen dira, prestakuntza ordu bakoitzeko (gehienezko puntuazioa: 4 puntu)

Atal honetan gehienez ere 10 puntu emanen dira.

Lehiaketa honetan gehienez ere 20 puntu lor daitezke.

7.2. Oposizioaldia.

–Lehen proba:

Erantzun laburreko eta/edo test motako 50 galderari erantzun beharko zaie idatziz, II. eranskinetako gaiei buruz.

Proba honek ordu eta erdi iraunen du gehienez eta 70 puntu izanen ditu gehienez ere. Erantzun okerrak zigortuko dira, epaimahaiak ariketa hasi aurretik zehaztuko duen maneran. Baztertu egingen dira gutxienez 35 puntu lortzen ez duten izangaiak.

Probak plika bidezko gutun-azal itxien bidez egingen dira. Emaitzak hiru eguneko epean argitaratuko dira erakundearen webgunean.

7.3. Froga psikoteknikoa: 10 puntu gehienez..

7.4. Izangaietako batek ere ez baditu proba guztiak gainditzen edo gaindituta ere kontratatua izaterik nahi ez badu, Sakanako Mankomunitateak kontratatu ahalko du probaren bat gainditu duen hurrengo izangaia, hautapen-aldian lortutako puntuazio ordenari zorrotz jarraituz.

7.5. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingen da. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste identifikazio agiri bat aldean dutela agertu beharko dute, eta oposiziotik baztertua geldituko dira agertzen ez diren izangaiak.

7.6. Hautaprobetan, minusbaliotasuna izanik halaxe eskatzen dutenek denbora eta baliabide aldetik zilegi diren egokitzapenak izanen dituzte, eskabidean azaltzen dutenaren arabera.

8. oinarria. Epaimahaiaren proposamena.

8.1. Azken proba bukatuta, epaimahaiak puntu gehien lortu dituen izangaia kontratatzeko proposamena egingen dio Sakanako Mankomunitateari.

Berdinketa izanez gero, lehentasuna izanen du bigarren ariketan puntuaziorik handiena eskuratzen duenak, eta hala ere berdinketa hausten ez bada, zozketa egingen da izangaien artean.

8.2. Proposamena loteslea izanen da Sakanako Mankomunitatearentzat.

8.3. Ariketak bukatuak, emaitzak jendaurrean jarriko dira Sakanako Mankomunitatearen iragarki oholean, probak egin diren tokian eta web orrian (<http://sakana-mank.eus/>).

8.4. Hautatutako izangaiak deialdi honen hirugarren oinarriaren arabera aurkeztutako jatorrizko dokumentuak entregatu beharko dizkio Mankomunitateari, kontratazio-proposamena egin aurretik.

8.4. Hautatutako izangaiak astebeteko epean hasi beharko du lanean, gehienez ere, Sakanako Mankomunitatearen kontratazio proposamena onartzen duenetik aitzina. Ez bada hasten, behar adina justifikatutako kasuak salbu, edo lanean hasi eta berriz lanpostua hutsik gelditzen bada, organo eskudunak kontratazioarekin ados dauden izangaiei egiten ahalko die kontratua, hautapen prozesuan ateratako puntuazio onenaren ordenari jarraituz.

9. oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen, haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, hautara, ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

A) Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

B) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

C) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.

Lakuntza, 2024ko azaroaren 13a.-Lehendakaria, Aitor Larraza Carrera.